

IBONE BENGOTXEAREKIN BILERA

Atzo, urriaren 8an, Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformak Lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua den Ibone Bengoetxearekin bilera izan zuen. Eskertuta gaude, Plataformak eskatutako bilerari baietza eman izanaz.

Gure helburuak zehatzak izan dira. Alde batetik, plataformaren aurkezpen laburra egitea, gure helburua zehaztuz: Guggenheim Urdaibai proiektua, behin betiko, alboratzea. Bestetik, proiektu honek sortzen dizkigun kezka eta galdera guztiak mahai gainean jartzea. Eta amaitzeko, Bengoetxea andereak proiektu honen inguruan duen informazioa eta iritzia ezagutzea, bai lehendakariorde bai Kultur sailburu den aldetik.

Kezkak honetara labur daitezke: gobernantza estiloa inositiboak; Biosfera Erreserben xedearen kontra aritzea; proiektua ez izatea inongo diagnostikoren emaitza; proiektua bere horretan ez existitzea.; Natura 2000 sareko Babes Bereziko Eremuan planifikatzea, zaurgarritasun handieneko eremuan; estuarioak erakusten dituen saturazio-ebidentziak; Planetaren mugak aintzat ez hartzea; diru publikoa helburu pribatuatarako xahutzea; museoak eskualdeko beharizanentzat erantzuna ez izatea; Biosfera Erreserbaren etorkizun osasuntsua proiektuarekin lotuz herritarrak manipulatzeko; prozesu parte hartzaile zuritzaileak abiatzea; eta bertoko kulturaren galera bultzatzea.

Orokorrak diren kezka guzti hauei Ibone Bengoetxeak berriki egindako adierazpenak sortzen diguten egonezina ere gehitu ditugu, irmoak izan baitira proiektua bultzatzearen alde. Natura eta Arte binomioa ere mahai gainean jarri zituen, aurreko Industria-Natura bikotearekin alderatuz eta goraipatuz. Era berean, publikoki onartu zuen proiektuaren inguruko gai batzuk komunikatzeko eta partekatzeko eran ez dutela asmatu, eta elkarrizketa baten beharra aitortu zuen, baina gobernuak aurrera egiteko nahikoa dela argi utziz. Hortaz, aurreko legealdian baino jarrera proaktiboagoa adierazten du Jaurlaritzak proiektuarekiko, eta gainera gobernu-akordioaren parte da ere. Hau horrela, administrazio guztiak lerrokatu direla esan beharra daukagu. Halere proiektu hau ez da inolaz ere proiektu publiko bat.

Sailburuak proiektua eskualdearentzat aukera ona izan daitekeela uste du, eta hauteskundeak irabazi dituen alderdia izanik, berau gauzatzeko duten legimititatea eta eskubidea azpimarratu du. Gobernuak aurrera egin nahi du proiektuarekin, baina ez luke bakarka egin nahi. Elkarrizketa baten beharra dagoela adierazi digu, eskualdeak elkarrizketa merezi duela.

Plataformak bat egiten du elkarrizketa behar horrekin, baina proiektu hau bideragarri egiteko ematen ari diren urrats administratibo guztiak gelditzea eta hausnarketa erreal bat martxan jartzea beharrezkoa litzatekeela uste dugu. Inposizio bakoa. Eskualdeko egoeraren diagnostiko fina egin dezagun eta proiektu partehartzaile baten bitartez konponbideak bilatu. Has gaitezen zerotik, turistifikazioa areagotuko duen museo pribatu bat Biosfera Erreserbako zonalde nukleotik ataraz.

Egungo egoera bestelakoa da, ordea. Elkarrizketa eskaintzen diguten bitartean, Gernikako Dalia eraisten ari dira, Muruetako HAPOa eta Gernika-Markina Lurraldeko Plan Partziala ere moldatzen ari dira. Eta are kezagarriagoa dena, Gernikan eta Muruetan eraikitzea erabaki duten museoak lotuko dituen bide berdearen parte izango den pasarelaren proiektua (palafitoa) onartu eta lizitatu egin dute, udazkenean berau eraikitzeke lanak hasteko asmoa dutela ere publikatuz.

Egoera honen aurrean, gure kezkak argiak dira eta proiektu honi dagokionez posizioak bateratzea zaila da. Herritarrok ditugun eskubideak errespetatzeko asmoz, proiektua publiko egitea eskatu diogu, dagokion ingurumen inpaktu txostenarekin batera. Gabezia larri horrek babes barik uzten gaitu, asko baitira ematen ari diren urrats txikiak norabide argi baterako. Proiektuaren ebaluazio oso izan behar du.

Mahai gainean jarri ditugun pisuzko arrazoi guztiak kontuan izanda, gutxieneko hausnarketa txiki baten beharra sortu izana espero eta nahi dugu. Halere, bilera honek ere ez du proiektu horren inguruan dugun ideia aldatu. Gaur konbentzituago gaude proiektua inongo diagnostiko barik proposatutako okurrentzia bat besterik ez dela, eta lege eta araudiak tolestu eta moldatuz, urratsez urrats bideragarri egiten saiatzen diren bitartean, desinformazioa dela nagusi... edo behintzat, hori da pentsatzea nahi dutena.

Guggenheim Urdaibai Stop

Busturialdean, 2024ko urriaren 9a